



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

2023/03/28an EGINDAKO OHIKO
UDALBATZA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE
LA CORPORACIÓN. Día 28/03/2023.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Ordezko Alkate-Udalburua

Josu Ezkurdia Santamaría

Zinegotziak

Maite Uribe Beristain
Maria Purificación Regidor Varela
Antonio Regaño Sájeras
Ana Belén de Castro Ramos
Eluska Irazu Henández
Nestor Arana Arexolaleiba
Dorleta Sologaistoa Aguiriano
Xabier Uriarte Iñurrategi
Leire San Vicente Carrillo

Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2023ko martxoaren 28an, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Josu Ezkurdia Santa Maria jarduneko alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Ohiko Udalbatza, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Jose Ramon Zubizarreta Alegria.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 28 de marzo de 2023, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente en Funciones Josu Ezkurdia Santa María , con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste José Ramón Zubizarreta Alegria.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAAD1SB2.aNyc>

2023/03/28
Ohiko Udalbatza
Pleno Ordinaria



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

2023/02/28an egindako osoko bilkurako akta onartu da.

2.- ALKATEAREN KOMUNIKAZIOAK.

2023ko martxoaren 21era arte hartutako erabakien berri eman da.

3.- ERAKUNDE ADIERAZPENA: IRUZURRAREN AURKAKO ESKORIATZAKO UDALAREN POLITIKA SEM FUNTSETARAKO.

Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako ERAKUNDE ADIERAZPENA onartzea ERABAKI DU:

IRUZURRAREN AURKAKO ESKORIATZAKO UDALAREN POLITIKA SEM FUNTSETARAKO.

Sarrera

ESKORIATZAKO UDALAK SEMeko funtsak kudeatzeko agintaritza funtzioa betetzen du.

ESKORIATZAKO UDALA osatzen duten enplegatu publikoek, besteak beste, honako betebeharrak dituzte: "interes orokorrak zaindu, betiere, Konstituzioari eta gainerako ordenamendu juridikoari begiratuta eta haiei lotuta; printzipio hauek oinarri hartuta jardun beharko dute beti: objektibotasuna, osotasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, isilpekotasuna, zerbitzu publikorako dedikazioa, gardentasuna, eredugarritasuna, austeritatea, irisgarritasuna, eraginkortasuna, zintzotasuna, kultur-ingurunearen eta ingurumenaren sustapena, eta emakume eta gizonen arteko berdintasunerako errespetua" (7/2007 Legea, apirilaren 12koa, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuarena, 52. artikulua).

Halaber, EBren finantza-interesak babestea dagokie, erantzunkidetasunaren, eraginkortasunaren eta lankidetzaren printzipioen arabera.

ESKORIATZAKO UDALAK arau juridiko, etiko eta moralak betetzeko orduan estandarrik altuenak mantentzeko konpromisoa adierazten du, osotasun, objektibotasun eta zintzotasun printzipio gorenekin bat egiten du, eta bere eskumenak gauzatzeko moduagatik iruzurraren eta ustelkeriaren aurkakotzat har dezaten nahi du.

2023/03/28
Ohiko Udalbatza
Pleno Ordinaria



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

Politika horren helburua da kultura bat sustatzea, iruzurrezko jarduera oro zapuztuko duena eta iruzurraren prebentzioa eta detekzioa erraztuko duena, bai eta iruzurrak eta horrekin lotutako delituak ikertzeko eraginkorrak diren prozedurak garatzea ere, eta kasu horiek egoki tratatzen direla ziurtatuko du.

ESKORIATZAKO UDALAK prozedura bat izango du interes-gatazkako egoeren berri emateko.

Iruzur terminoa legez kontrako hainbat jokabide deskribatzeko erabiltzen da, besteak beste, lapurreta, ustelkeria, bidegabeko eralgitzea, eroskeria, faltsutzea, desitxuratzea, kolusioa, dirua garbitzea eta egitate materialak ezkutatzea.

Askotan, engainua erabiltzen da norberaren, norberarekin lotura duen persona baten edo hirugarren baten onurarako, edo hirugarren bati galera bat sortzeko –intenzionalitatea da irregularitasuna eta iruzurra bereizten duen funtsezko elementua. Iruzurrak, finantza-inpaktu potentziala izateaz gain, funtsen kudeaketa eraginkor eta efizienteaz arduratzen diren erakundeen ospea kaltetzen du.

Hori bereziki garrantzitsua da EBko funtsen kudeaketaz arduratzen den erakunde publiko batentzat. Ustelkeria onura pribaturako botere-abusua da.

Interes-gatazka dago pertsona baten funtzio ofizialen egikaritza inpartziala eta objektiboa konprometituta dagoenean familia-arrazoiengatik, afektibitate-arrazoiengatik, kidesun politiko edo nazionalagatik, interes ekonomikoagatik edo partekatutako beste edozein interesengatik, adibidez, EBko funtsen eskatzaile edo onuradun batekin.

Erantzukizunak

ESKORIATZAKO UDALEAN, iruzurraren eta ustelkeriaren arriskuaren kudeaketaren erantzukizun orokorra diziplina anitzeko lantalde batek hartzen du bere gain. Lantalde hori funts horien kudeaketan inplikaturik dauden udal-unitate, -sail, -zerbitzu edo -arlotako kideek osatzen dute, batez ere prozesuaren fase hauei dagokienez:

- Eragiketak hautatzea (Kudeaketa Unitatea).
- Kontratazio-prozedurak (Kontratazio Zerbitzua).
- Egiaztapen dokumentalari eta tokian bertan egindako egiaztapenei buruzko egiaztapenak (Kudeaketako Bulego Teknikoa).
- Ordainketak baimentzea (Aurrekontu eta Kontabilitate Zerbitzua, Kontu-hartzailletza Nagusia eta Diruzaintza).

Talde horrek honako hauek egiteko ardura izango du:

- Iruzur-arriskuaren aldizkako berrikuspina egitea, arriskuak ebaluatzeko talde baten laguntzarekin.
- Iruzurraren aurkako borroka-politika eraginkorra eta iruzurraren aurkako erantzun-plana ezartzea.
- Langileak iruzurraz sentsibilizatzea eta horrekin lotutako prestakuntza sustatzea.
- Udalak unean-unean ikerketa-erakunde eskudunen eskaerei erantzuten diela ziurtatzea, eskaera horiek egondakoan.

2023/03/28
Ohiko Udalbatza
Pleno Ordinaria



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

ESKORIATZAKO UDALAK, erakunde betearazlea den aldetik, bere gain hartzen dituen eginkizunen artean sartzen da iruzurraren aurkako neurriak abian jartzea, Europar Batasuneko araudian ezarritakoaren esparruan eta proportzionaltasun-irizpideei jarraiki. Era berean, prozesuen arduradun eta kudeatzaileen lankidetzat du, bakoitzaren erantzukizun-arloaren barruan barne-kontrolako sistema egokia dagoela ziurtatzeko eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak ezartzeko behar den prestasuna bermatzeko.

ESKORIATZAKO UDALEKO prozesuen arduradunak eta kudeatzaileak iruzur-arriskuen eta ekintza-planen eguneroko kudeaketaren arduradunak dira, iruzur-arriskuaren ebaluazioan ezarritakoaren arabera eta, bereziki, honako hauetarako:

- Bere erantzukizun-eremuaren barruan barne-kontrolako sistema egokia dagoela ziurtatzeko.
- Iruzurra prebenitzeko eta antzemateko.
- Iruzur-susmoen kasuan, arreta egokia eta zuhurtzia-neurrien ezarpena bermatzeko.
- Neurri zuzentzaileak hartzeko, administrazio-zehapenak barne, dagokionaren arabera.

Iruzurraren salaketa

ESKORIATZAKO UDALAK iruzurra salatzekeo prozedurak izango ditu, bai barruan, bai agintari eskudunen aurrean.

Txosten guztiak konfidentzialtasun osoz eta indarrean dagoen araudiaren arabera landuko dira.

Irregularitasunak edo iruzur-susmoak salatzen dituzten enplegatuak balizko errepresalietatik babestuko dira.

Iruzurraren aurkako neurriak

ESKORIATZAKO UDALAK iruzurraren aurka borrokatzekeo neurri sendoak jarriko ditu martxan, proportzionatuak, iruzur arriskuaren ebaluazioan oinarrituta. Langileak iruzur-arriskuez jabetzen direla eta iruzurraren aurkako trebakuntza jasotzen dutela ziurtatuko du.

Era berean, eskuarki berrikusiko ditu iruzur susmo guztiak eta benetan gertatu direnak, kudeaketa- eta barne-kontrolako sistema berrikusteko eta, hala behar izanez gero, hobetzeko.

Ondorioa

Iruzurra era askotara ager daiteke.

ESKORIATZAKO UDALAK **zero tolerantziako** politika du iruzurraren eta ustelkeriaren aurrean, eta kontrol-sistema sendoa ezarriko du iruzurrak, ahal den neurrian, prebenitzeko eta antzemateko eta, gertatuz gero, horien eragina zuzentzeko.

Politika horrek eta dagozkion prozedura eta estrategia guztiak irailaren 19ko 802/2014 Errege Dekretuaren bidez sortutako iruzurraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalaren laguntza dute.

2023/03/28
Ohiko Udalbatza
Pleno Ordinaria



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

4.- ESKORIATZAKO UDALAREN SUSPERTZE, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANA GAUZATZEKO IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN TOKIKO PLANA ONARTZEA.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duen iraileko HFP/1030/2021 Aginduak ezartzen du Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (SEEParen) neurriak gauzatzen parte hartzen duen erakunde erabakitzaile edo betearazle orok «iruzurraren aurkako neurrien plana» izan beharko duela, dagokion jarduera-eremuan, dagozkion funtsak aplikatu beharreko arauen arabera erabili direla bermatzea eta deklaratzeko ahalbidetuko diona, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeari, detektatzeari eta zuzentzeari dagokionez.

Irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduak, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eratzen duenak, 90 eguneko epea ezartzen du iruzurraren aurkako plana onartzeko agindu hau indarrean sartzen denetik edo, hala badagokio, Suspertze eta Erresilientzia Plana -PRTR- gauzatzen parte hartu dela jakiten denetik.

Udal hau, laster, Europar Batasunak finantzaturako NextGeneration EU Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak diruz lagundutako proiektuen erakunde betearazlea izan daitekeela ikusirik, Udalak, 2022ko irailaren 27ko Osoko Bilkuran, besteak beste, erabaki zuen iruzurraren, interes-gatazkaren, finantzaketa bikoitzaren eta estatu-laguntzen eta ingurumenari egindako kalte ez esanguratsuaren aurkako baldintzak betetzeko neurrien planari atxikitzea (Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak 2022ko martxoaren 29an onartua; 2022ko apirilaren 13ko EHAA, 74. zk.), eta Eskoriatzako Udaleko Iruzurraren aurkako Batzordea ERATZEA arriskuak ebaluatzen hasteko eta kideak izendatzeko:

- Idazkaria-kontuhartzailea-diruzaina: Edurne Iturbe
- Ekonomia zerbitzuko teknikaria: Maria Pilar Belategi
- Kontuhartzailetzako teknikaria: Maria Pilar Biain
- Ingurumen teknikaria: Saio Altzua

Udal honetako Iruzurraren aurkako Batzordeko kideen parte-hartzearekin, Iruzurraren aurkako Neurrien Plan propio bat egin da, Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismitik (SEMetik) datozen funtsak kontuan izanda iruzurraren aurkako eta ustelkeriaren aurkako gaietan aplikatu eta bete beharreko printzipioak eta arauak ezartzeko eta interes-gatazkak saihesteko.

Espedientean jasotako planari buruzko agiriak eta horien eranskinak ikusita, eta Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Eskoriatzako Udalaren Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko Iruzurraren Aurkako Neurrien Tokiko Plana eta bere eranskinak onartzea, besteak beste, honako hauek:

0 eranskina. Iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko neurriei buruzko autoebaluazioa.

2023/03/28
Ohiko Udalbatza
Pleno Ordinaria



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

- I. eranskina. Iruzuraren aurka borrokatzeko erakunde adierazpena.
- II. eranskina. Arriskuaren ebaluazioa, eragina eta probabilitatea.
- III. eranskina. Etika eta jokabide kodea.
- IV. eranskina. Adierazleen katalogoa (bandera gorriak).
- V.1-2 eranskina. Interes-gatazken politika.
- V.3-4 eranskina. Interes-gatazkarik ezaren adierazpena (IGEA).
- VI. eranskina. Interes-gatazka egoerak saihesteko eta kudeatzeko orientabideak Finantza Erregelamenduaren arabera.
- VII. Eranskina. Hirugarrenen konpromiso-adierazpena.
- VIII. eranskina. Datuen lagapenaren eta tratamenduaren aitortpena.

Bigarrena.- Salaketa-kanala aktibatzea.

Hirugarrena.- Erabaki hau eta bere eranskinak Udalaren egoitza elektronikoa argitaratzea, guztiek horren berri izan dezaten.

5.- OHZ ETA TMIZ ARAUTZEN DUTEN ORDENANTZEN 3. ARTIKULUA ALDATZEA.

Beharrezkotzat jotzen da xehetasun handiagoz garatzea Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duten ordenantzen 3. artikuluan jasotako familia ugarietarako hobariak.

Hori horrela, eta Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamena ikusirik, Udalbatzarrek, bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Ondoren esango den moduan aldatzea Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen ordenantzaren eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen ordenantzaren 3. artikulua.

- **ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAREN KUOTAK ZEHAZTEKO OINARRIZKO ELEMENTUEN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA**

3. artikuluko 5. idatz-zatia aldatzeko proposamena.

HONAKO HAU DIOEN LEKUAN:

5. Ohiko bizilekua denean, kuota osoko hobari hauek aplikatuko zaizkie familia ugaria diren subjektu pasiboak.

2023/03/28
Ohiko Udalbatza
Pleno Ordinaria

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Seme-alaba kopurua	Hileko soldata, Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatarekiko (LAGS)					
	$x \leq$ LAGS	x: LAGS + %10 arte	x: LAGS + %20 arte	x: LAGS + %30 arte	x: LAGS + %50 arte	x: LAGS + %60 arte
3	%45	%40	%25	%15	-	-
4	%45	%45	%40	%25	%15	-
5 edo >	%50	%45	%45	%40	%25	%15

X = familia unitateko kide guztien soldaten batura zati familia unitateko kide kopurua.

“Hobari eskaera Gizarte Zerbitzuetan egin beharko da, eta eskaerarekin batera agiri osagarri guztiak aurkeztu beharko dira. Sail horretako teknikariek familia-unitatea osatzen duten kide guztien “hileko soldata mailaren” berri emango dute. Eskaeraren gaineko erabakia Alkateak hartuko du Ogasun Batzorde informatzailearen txostena jaso ondoren”.

HONAKO HAU ESATEA:

5. Ohiko bizilekua denean, kuota osoko hobari hauek aplikatuko zaizkie familia ugaria diren subjektu pasiboiei.

Seme-alaba kopurua	Hileko soldata, Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatarekiko (LAGS)					
	$x \leq$ LAGS	x: LAGS + %10 arte	x: LAGS + %20 arte	x: LAGS + %30 arte	x: LAGS + %50 arte	x: LAGS + %60 arte
3	%45	%40	%25	%15	-	-
4	%45	%45	%40	%25	%15	-
5 edo >	%50	%45	%45	%40	%25	%15

X = familia unitateko kide guztien soldaten batura zati familia unitateko kide kopurua.

Idazkaritza-Kontuhartzailletza

Familia-unitateko kide bakoitzaren soldatak zehazteko, zerga-oinarri orokorraren eta zerga-onuraren aurreko urteko PFEZaren aurrezkiaren zerga-oinarriaren batura hartuko dira erreferentziatzat.

Hobaria jaso ahal izateko baldintza eta tramite formalak:

- Subjektu pasiboak familia ugariaren titular izan beharko du zerga sortzen den egunean, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean.

Hobari eskaera Gizarte Zerbitzuetan egin beharko da.

Inprimakiarekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira:

-Familia ugariaren titulua edo fotokopia konpultsatua.

-Familia ugariko kide guztien zerga-onuraren aurreko urteko PFEZaren fotokopia konpultsatua edo hura egiteko betebeharra ez dutela egiaztatzen duen ziurtagiria.

- **TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN KUOTAK ZEHAZTEKO OINARRIZKO ELEMENTUEN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA**

3. artikuluko 5. idatz-zatia aldatzeko proposamena.

HONAKO HAU DIOEN LEKUAN:

3.1.4.- Familia ugaria diren subjektu pasiboak, honako hobari hauek aplikatuko zaizkie zergaren kuota osoan. Hobaria bizikidetzaren unitatearen bost plaza edo gehiagoko ibilgailu bakarrari aplikatuko zaio.

Seme-alaba kopurua	Hileko soldata, Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatarekiko (LAGS)					
	$x \leq \text{LAGS}$	$x: \text{LAGS} + \%10$ arte	$x: \text{LAGS} + \%20$ arte	$x: \text{LAGS} + \%30$ arte	$x: \text{LAGS} + \%50$ arte	$x: \text{LAGS} + \%60$ arte
3	%45	%40	%25	%15	-	-
4	%45	%45	%40	%25	%15	-
5 edo >	%50	%45	%45	%40	%25	%15

X = familia unitateko kide guztien soldaten batura zati familia unitateko kide kopurua.

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

“Hobaria aplikatu ahal izateko, interesatuek hobaria egiteko eskatu beharko dute. Diru laguntza eskaera Gizarte Zerbitzuetan egin beharko da, eta eskaerarekin batera agiri osagarri guztiak aurkeztu beharko dira. Sail horretako teknikariek familia-unitatea osatzen duten kide guztien “hileko soldata mailaren” berri emango dute. Eskaeraren gaineko erabakia Alkateak hartuko du Ogasun Batzorde informatzailearen txostena jaso ondoren”.

HONAKO HAU ESATEA:

3.1.4.- Familia ugaria diren subjektu pasiboak, honako hobari hauek aplikatuko zaizkie zergaren kuota osoan. Hobaria bizikidetzaren unitatearen bost plaza edo gehiagoko ibilgailu bakarrari aplikatuko zaio.

Seme-alaba kopurua	Hileko soldata, Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatarekiko (LAGS)					
	$x \leq \text{LAGS}$	$x: \text{LAGS} + \%10$ arte	$x: \text{LAGS} + \%20$ arte	$x: \text{LAGS} + \%30$ arte	$x: \text{LAGS} + \%50$ arte	$x: \text{LAGS} + \%60$ arte
3	%45	%40	%25	%15	-	-
4	%45	%45	%40	%25	%15	-
5 edo >	%50	%45	%45	%40	%25	%15

X = familia unitateko kide guztien soldaten batura zati familia unitateko kide kopurua.

Familia-unitateko kide bakoitzaren soldatak zehazteko, zerga-oinarri orokorraren eta zerga-onuraren aurreko urteko PFEZaren aurrezkiaren zerga-oinarriaren batura hartuko dira erreferentziatzat.

Hobaria jaso ahal izateko baldintza eta tramite formalak:

- Subjektu pasiboak familia ugariaren titular izan beharko du zerga sortzen den egunean, urte bakoitzeko urtarilaren 1ean.

Hobari eskaera Gizarte Zerbitzuetan egin beharko da.

Inprimakiarekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira:

-Familia ugariaren titulua edo fotokopia konpulsatua.



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

-Familia ugari kide guztien zerga-onuraren aurreko urteko PFEZaren fotokopia konpultsatua edo hura egiteko betebeharra ez dutela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Bigarrena.- Erabakia jendaurrean jartzea 30 egunez, nahi duenak erreklamazioak edo oharrak egin ditzan.

Hirugarrena.- Aldaketa erabakia behin betikoa izango da, erabaki berririk hartu behar gabe, jendaurrean jartzeko arauzko epea igarota inolako erreklamaziorik egin ez balitz.

6.- 1/2023 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA (kreditu-transferentzia modalitatea).

Udal honetako aurrekontuan eragina duen kredituak aldatzeko 1/2023. espedientearen berri eman da. Kreditu aldaketa aurrekontuetako gastu partiden arteko kreditu transferentzia bidez egingo da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipaturako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Toki Erakundeen Aurrekontu erregelamendua onartzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 28 a) eta 29 artikuluetan ezarritako betebeharrei.

Era berean, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako aldeko txostena eta onspen proposamena irakurri dira.

Eztabaidaren ondoren bozketa egin da, eta Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Udal honetako aurrekontuari dagozkion kredituak aldatzeko 1/2023. espedientea onartzea, horretarako egindako proposamenean zerrendatzen diren aurrekontuetako gastu partiden arteko transferentzia bidez, eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera.

Kredituak transferituko dituzten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0600.421.335.10.01 2023	APORTAZIOA: LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA	71.295,17	1.750,00	69.545,17

2023/03/28
Ohiko Udalbatza
Pleno Ordinaria



Idazkaritza-Kontuhartzailetza

BIGARRENA: SUSTAPEN EKONOMIKO ETA SOZIALA 7. lerro estrategikoan ondorengo dirulaguntza programa sartzea:

D) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: NEGOZIOEN SUSTAPENA: EUSKARAZ ERROTULATZEA ETA IRUDI KORPORATIBOA HOBETZEA.

HARTZAILEAK: Eskoriatzako merkatariak eta autonomoak.

HELBURUA: Herriko enpresetan eta merkataritza eta ostalaritza establezimenduetan errotuluak euskaraz jartzeko eta beraien irudi korporatiboa hobetzeko dirulaguntzak ematea.

LORTU GURA DENA: Eskoriatzako enpresetan eta merkataritza eta ostalaritza establezimenduetan errotuluak euskaraz jar daitezen eta beraien irudi korporatiboa hobetu dadin sustatzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Deialdi publikoa.

AURREIKUSITAKO KOSTUA: 1.500 euro.

FINANTZIAZIOA: 0500.471.431.00.01 partida

HIRUGARRENA.- Ondorengo dirulaguntza lerro estrategikoa sartzea:

9. LERRO ESTRATEGIKOA: INGURUMENA.

1. Helburu estrategikoa: Eskoriatzan, ingurumena babestu eta hobetzea.
2. Helburu zehatzak:
 - 1.- Udalerrriak dituen baliabide naturalen ezagutza zabaldu eta horien zaintza-premiari buruz kontzientziatzea.
 - 2.- Energia eraginkortasuna eta aurrezkoa sustatzea.
3. Egikaritze epea: urteroko deialdia.
4. Finantzazio iturriak: Udal aurrekontua, jarduera planean eta lerro zehatzetan jasotako aurrekontu aplikazioen arabera.
5. Dirulaguntzak emateko prozedura: Lerro estrategiko hau egikaritzeko dirulaguntzak norgehiagoka prozedura bidez edo aurrekontuan laguntza izendunak dituzten elkarrekin egindako hitzarmen bidez emango dira.
6. Jarduera plana: Lerro estrategiko hau egikaritzeko jarduera plana deialdietarako oinarriak eginez edota berariazko lankidetzak hitzarmen bidez egingo da ondorengo dirulaguntza lerro bakoitzerako.
7. Dirulaguntza lerro zehatzak:

A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: IKASTETXEKLIK PROIEKTUA

HARTZAILEAK: Gizabidea Fundazioa (D2030en bulego teknikoa)

HELBURUA: Luis Ezeiza herri eskolan, ur eta energia aurrezkoa eta eraginkortasuna sustatzea, hezkuntza komunitate osoarekin lankidetzan eta parte hartze aktiboan oinarrituta. Honetarako D2030 egitasmoaren baitan Ikastetxeklik proiektua daukate.

LORTU GURA DENA: Luis Ezeiza Herri Eskolan Ikastetxeklik proiektua ezartzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 1.750 euro

FINANTZIAZIOA: 1 0100.481.170.00.01 2023

2023/03/28
Ohiko Udalbatza
Pleno Ordinaria



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

8.- ESKORIATZAKO UDALAREN TITULARITATEKO HAINBAT UDAL ERAIKIN ETA LOKAL GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUA ALDATZEA.

Udalbatzarrak, 2020ko otsailaren 25ean egindako osoko bilkuran, erabaki zuen ESKORIATZAKO UDALAREN HAINBAT ERAIKIN ETA LOKAL GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO kontratua HEMEN GARBIKETAK SLU enpresari esleitzea, 138.052,60 euroko prezioan (Balio Erantsiaren gaineko Zerga kanpo), urtebeteko iraupenarekin, aipatutako kontratua 4 urtez luzatzeko aurreikuspenarekin berariaz adierazita, Administrazio Klausula Partikularretan ezarritako gainerako baldintzei eta kontratistaren proposamenean jasotako zehaztapenei lotuta.

Administrazio-kontratua 2020ko martxoaren 25ean formalizatu zen.

Zerbitzu teknikoek jakinarazi dute ordutik hona hauek gertatu direla:

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak honakoak ezarri zituen: batetik, "Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan KORONABIRUSen (SARSCoV-2) AURREAN 2020-2021 IKASTURTEAN JARDUTEKO PROTOKOLO OROKORRA" eta, bestetik, "Lan-arriskuen prebentziorako neurriak EAEko ikastetxeetan, COVID-19ren eraginpean egoteko arriskuari aurre egiteko, 2020/2021 ikasturtea".
- Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak "2020ko DENBORALDIAN IGERILEKU-INSTALAZIOAK IREKI ETA MANTENTZEKO IRIZPIDE SANITARIOAK" ezarri zituen, bai eta horien ondorengo eguneraketak ere.
- Eskoriatzako Udalak COVID-19ari aurre egiteko hainbat kontingentzia-plan zehaztu zituen udal eraikinetan.
- Dokumentu horietan oinarrituta, garbiketa- eta desinfekzio-lanak programatu ziren, eta hasieran kontratatutakoei zerbitzu gehigarriak gehitzeko beharra ikusi zen. Kontratuaren aldaketari dagokionez, aldaketa % 15,70koa izango zela kalkulatu zen.

Gaur egun honelako inguruabarrak gertatzen dira:

- a) Alde batetik, lehen adierazitako aldaketa eragin zituen arrazoiak pixkanaka arintzen joan dira, eta, beraz, gaur egun ez dira beharrezkoak garai hartan aurreikusitako garbiketak, eta horrek kontratuaren jatorrira itzultzea ekarriko luke.

2023/03/28
Ohiko Udalbatza
Pleno Ordinaria

Idazkaritza-Kontuhartzailletza

- b) Bestalde, garbiketa-kontratua aldatzeko beharra dakarten beste inguruabar batzuk ere gertatu dira:
- Udalaren, Kultur Etxearen eta Hidalga 5eko lokalaren (musika eskola) garbiketa-zerbitzua egiten zuen udal langileak erretiroa hartu du, eta bere lanpostua amortizatu egin da. Beraz, zerbitzu hori modu iraunkorrean kontratatu behar da, eta ez orain arte aldi baterako ordezkapen gisa egin izan den bezala.
 - Aurrekoaz gain, Udalean egindako obrekin eta herritarrentzako H@ZI zerbitzua martxan jartzearekin batera, zerbitzu hori egunero garbitzea erabaki zen, aurreikusitako orduak gehituta.
 - Jubilatuen etxeko tabernak bertan behera utzi du bere jarduera, eta, gaur arte bertako emakidadunak egin dituen garbiketa-zerbitzuak oraindik ere beharrezkoak direla dirudi, eraikinean bingoan jokatzen baita astearte arratsaldetan eta beheko solairuko komun publikoak egunero erabiltzen baitira.
 - Ludotekak ondoko lokala, Santa Ana 19ko beheka, erabiltzeko beharra ikusi du, eta, beraz, garbitu egin behar da.
 - Udal-brigadak geltoki zaharreko garbiketaren maiztasuna handitzea eskatu du. Horrek zentzuzkoa ematen du, langile horiek baitira zikinkeria gehien sortzen dutenak. Orain arte astean behin garbitzen zen, eta orain, astean bi aldiz garbitzea proposatzen da.

Aldaketa guzti horiekin % 18,92 igotzen da kontratuaren prezio.

Udal zerbitzu teknikoek aldaketa horien beharraren aldeko txostena egin dute, eta proposamen hauek egin dituzte:

1. Udaletxea: honako hauek egunero garbitzea eta desinfektatzea proposatzen da: harrera, komunak, eta pasabideak; gainerako espazioak, bulegoak eta bilera gelak erabileraren eta beharraren arabera garbituko dira, baina, maiztasun gutxiagoarekin. Lan horietarako 586 ordu egin beharra kalkulatzen da, 14.195,38 euroko kostu gehigarriarekin (BEZa barne).
2. Kultur etxea: honako hauek garbitzea eta desinfektatzea proposatzen da: komunak eta beheko solairuko pasabideak egunero, astelehenetik larunbatera. Gainerako gelak, bulegoak, aretoak eta komunak astean behin edo bi egunetan garbituko dira, beharraren arabera, eta, taberna, asteartean, bingoa dagoen egunetan. Lan

Idazkaritza-Kontuhartzailletza

horietarako 458 ordu egin beharra kalkulatu da, 11.094,68 euroko kostu gehigarriarekin (BEZa barne).

3. Musika Eskola: honako hauek garbitzea eta desinfektatzea proposatu da: komunak, bulegoak, pasabideak eta gelak, egunero. Lan horietarako 187 ordu egin beharra kalkulatu da, 4.529,93 euroko kostu gehigarriarekin (BEZa barne).
4. Ludotekaren ondokoa: lokal osoa hamabostero garbitzea eta desinfektatzea proposatu da. Lan horietarako 24 ordu egin beharra kalkulatu da, 581,38 euroko kostu gehigarriarekin (BEZa barne).
5. Tren-geltoki zaharra: komunak, aldagelak eta pasabideak astean bitan garbitzea eta desinfektatzea proposatu da. Lan horietarako 50 ordu egin beharra kalkulatu da, 1.211,21 euroko kostu gehigarriarekin (BEZa barne).

Aurrez esandako guztia kontuan izanik, urtean 31.612,58 euroko kostu gehigarria izango da, BEZa barne, hasieran aurreikusitako 167.043,65 euroekiko, hau da, % 18,92ko igoera.

Horiek horrela, eta Hirigintza eta Ingurumen batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, bertaratutako 6 zinegotzik alde bozkatuta (EAJ/PNVko 5 eta EEEko 1) eta gainerako 4 zinegotziak abstenituta (EH BILDUKOAK), honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Proposatutako baldintzetan aldatzea HEMEN GARBIKETAK enpresari HAINBAT UDAL ERAIKIN GARBITZEKO ZERBITZU PUBLIKOA EMATEKO 2020ko otsailaren 25ean esleitutako kontratua, urtean 31.612,58 euroko kostu gehigarriarekin (BEZa barne), hasieran aurreikusitako 167.043,65 euroekiko (BEZa barne), hau da, % 18,92ko igoera.

BIGARRENA.- Jarraian zerrendatuko diren partiden kontura gastu hauek xedatzea:

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA (€)	PARTIDA
Udaletxea	14,195,38	0100.227.920.00.01
Kultur etxea	11.094,68	0100.227.333.10.01
Musika Eskola	4.529,93	0100.227.326.10.01
Ludoteka ondoko lokala	581,38	0100.227.337.30.01

2023/03/28
Ohiko Udalbatza
Pleno Ordinaria



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

Geltoki zaharra

1.211,21

0100.227.153.40.01

HIRUGARRENA.- Erabaki hau kontratistari jakinaraztea, behin betiko bermea 1.306,30 eurotan handitu eta kontratu-aldaketa formalizatu dezan hamabost egun balioduneko epean, erabakia jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta, horrekin batera, dagozkion errekurtsioen erregimena adieraztea.

LAUGARRENA.- Alkateari ahalmena ematea kontratua aldatzeko agiria sinatzeko.

BOTO AZALPENA:

- Nestor Aranak adierazi du bere taldea, aldaketen edukiarekin ados dagoen arren, ez dagoela ados zerbitzu horiek ematen dituzten langileak Udaleko plantillakoak ez izatearekin, eta horregatik abstenitu egingo direla.

Horren aurrean, Josuk eskatu die planteamendu bat egin dezatela kontratua berriro lizitazioa ateratzen den unean, orain bere garaian esleitutako eta indarrean dagoen kontratu bat aldatu nahi baita.

9.- EH BILDU ESKORIATZA UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: URAREN NAZIOARTEKO EGUNA.

Hitza eman ondoren, Nestor Aranak mozioaren testua irakurri du. Hona hemen transkripzioa:

URAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Martxoaren 22an, Uraren Nazioarteko Eguna dela eta, gure berehalako arreta eskatzen duen gai garrantzitsu bat jakinarazi nahi dizuegu: plastikoen presentziagure tokiko ibaian.

Denok dakigu ura funtsezkoa dela bizitzarako, eta gure ibaiak berebiziko garrantzia dute baliabide preziatu hori emateko. Hala ere, kutsadura plastikoaren arazoak gure ibaien osasuna eta bizitzari eusteko gaitasuna mehatxatzen ditu. Plastikoen gure

2023/03/28
Ohiko Udalbatza
Pleno Ordinaria



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

inguruko kutsatzailerik iraunkorrenetako bat dira, eta ehunka urte behar dituzte degradatzeko. Ondorioz, gure ibaietan pilatzen dira, uretako bizitzari eta, azken batean, gure osasunari kalte eginez.

Gainera lotura zuzena dago ibaietako kutsadura plastikoaren eta itsasoko arrainen barruan mikroplastikoen presentziaren artean. Behar bezala ezabatzen ez diren hondakin plastikoak ibaietara irits daitezke eta, azkenean, ozeanorako bidea har dezakete, non zati txikiagoetan zatitzen den olatuen eta eguzkiaren eraginaren ondorioz. Plastikozko partikula txikiago hauei mikroplastikoak esaten zaie.

Behin ozeanoan, mikroplastikoak irentsi ditzakete itsas organismo txikiek eta elikadura katean sartu. Gainera, mikroplastikoak arrain-ehunetan pila daitezke, eta horrek, azken batean, gizakien osasunerako arriskua ekar dezake kutsatutako

itsaskiak kontsumitzen ditugunean.

Gure ibaietatik plastikoak kentzea beharrezkoa ez ezik, premiazkoa ere bada. Guztion ahalegin kolektiboa eskatzen du, pertsona, komunitate eta gobernu garen aldetik. Neurriak hartu behar ditugu plastikoaren erabilera murrizteko, hondakin plastikoak arduraz ezabatzeko eta gure ibaiak garbi eta osasuntsu daudela bermatzeko.

Hori lortzeko, ikuspegi integrala behar dugu, honako hauek barne hartuko dituen:

- Lehenik, jendea sentsibilizatzea kutsadura plastikoaren arriskuez eta ibaigarbien garrantziaz. Kutsadura plastikoak ingurumenean, faunan eta giza osasunean dituen inpaktu negatiboari buruz pedagogia egiten jarraitzea.*
- Bigarrenik, norbanakoak garen aldetik, plastikoaren erabilera*

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

murriztu dezakegu, plastiko hondakinak modu arduratsuan bota eta garbiketa lanetan parte hartu dezaten animatzea.

- *Hirugarrenik, Udalak kaleak garbitzeko kontratuaren zati gisa ibai-garbiketa barne hartzea proposatzea, bertako biodibertsitatea kontutan hartuz eta babestuz. Horrela lortuko dugu gure ibaia erregulartasunez garbitzea, bertan pilatzen diren hondakinak kenduz eta ozeanora iristea eragotziz.*
- *Laugarrenik, Udalak Eskoriatza zeharkatzen dituzten erreka eta ibaietako barandiletan babes neurriak (rejillak) jarri ditzala eskatzen dugu, plastikoek errekan bukatu ez dezaten.*
- *Bostgarrenik, badira ibaiaren beste eremu batzuk ere kutsadura, plastikoaketa beste hondakin mota batzuek eragindakoak (Herriko iparraldeko sarreraadibidez). Eremu hauek ere garrantzitsuak izanik, ibaiaren garbiketa-lanak ibaiko beste eremu horietara ere zabaldu beharra dago.*
- *Eta azkenik, onartu behar dugu premiazkoa dela plastikoak gure ibaietatik kentzea eta neurriak hartzea gure ingurumena, fauna eta geure burua babesteko. Konpromisoa hartu behar dugu gure ibaiak garbi eta osasuntsu egon daitezen hurrengo belaunaldietan, bertako flora eta fauna zainduz.*

INTERVENCIONES QUE SE PRODUCEN:

- *Josu Ezkurdia: Nestorri eskerrak eman eta batzordean esandakoa gutxi gorabehera komentatuko duela adierazi ondoren, nahiz eta, adierazi duenez, elementu berriren bat ere aipatu den, honela dio: "Ondo dakizunez, gu ez gara oso mozio zaleak, gu gutxiago hitz egin eta gehiago egitekoak gara. Zentzu horretan, egia da mozio horretan zenbait ekintza agertzen direla, batzuk interesgarriak, eta gehiago esango nuke, dagoeneko egiten ari garen batzuk, hala nola aipatzen duzun ibaiaren garbiketa. Beno, aurreko*

Idazkaritza-Kontuhartzailletza

agintaldian hasi ginen ibaiak garbitzeko programa batekin. Bi urtean behin garbitzen dira, arloko teknikariek hori gomendatu baitzuten. Egia da pandemia garaian bertan behera geratu zela, dena atzeratu eta zaildu zela. Baina, tira, aurrerantzean egutegiari eutsiko zaio eta, dena ondo badoa, tokatzen denean egingo da hurrengo garbiketa. Beraz, ez dut uste mozio bat behar dugunik hori egiteko edo bultzatzeko, egiten ari garelako. Gainera, hori garbiketa-kontratuan sartzea proposatzen duzue. Guretzat akats bat da, eta akats bat da, gure garbiketa-kontratua, lorezaintzakoa bezala, oso handia delako, hau da, diru aldetik, eta denok dakigu zer enpresa mota sartzen diren kontratu ekonomiko handia denean; eta errespetu osoarekin edozein enpresarekiko, baina enpresa handiak sartzen dira. Eta denok dakigu gu bezalako udal txiki batek aukera gutxi dituela enpresa handi bati gauzak eskatzeko kontratu bat egon arren, hau da, arazo bat dagoenean edo gure kaleak guk nahi edo espero dugun bezain garbi ez daudenean, edo gure lorategiak guk nahi bezain politak ez direnean, teknikariak edo guk geuk enpresa handi horietara jotzen dugu eta, beno, erantzuna bai-bai da, baina hor geratzen dira. Eta kontratu handi bati lotuta gaude. Zentzu horretan, guretzat akatsa da, eta asmo oneko proposamena dela ulertzen dugu, baina akats bat da kontratu hori zabaltzea. Gainera, teknikoki zaila dirudi horrelako lanak mota horretako enpresek egin ahal izatea, nahiko lan bereziak baitira, edo, gutxienez, gai hori jorratu dugunean, arloko teknikariak hala adierazi digu. Horregatik guztiagatik, ongi etorri proposamena, baina, esan dudan bezala, dagoeneko ezarrita daukagun zerbait da, eta, nolahi ere, kanpaina urtero egin daiteke, bi urtean behin egin beharrean, baina teknikariek landu beharko litzatekeen gaia da. Gainera, ez da diru kontua, ez da hori arazoa; izan ere, zorionez, kanpaina horiek ez dira oso garestiak. Urtero egin daitezke, baina kontua ez da dirua alferrik gastatzea, diru publikoa ondo erabiltzea baizik. Gero landare inbaditzaileen arazoa aipatu duzu. Eta, tira, jakinarazi behar da gai hori ere aurreko legealdian jarri genuela martxan. URA AGENTZIArekin akordio bat dugu gaia kudeatzeko. Dakizuenez, Euskadiko kostaldeak eta ibaiak Eusko Jaurlaritzak kudeatzen ditu zuzenean, Eusko Jaurlaritzaren agentzia publiko bat dugu, eta agentzia hori arduratzen da gai horiek kudeatzeaz, eta gure kostalde edo ibaietan egin nahi den edozein jarduketa egiteko, URA AGENTZIAren baimena behar da. Hori esanda, URA AGENTZIArekin formalizatuta dugun hitzarmenean jarduketa horiek jasotzen dira, eta, mozioak aurkeztu beharrean, teknikariek eta udal-gobernuak konpromiso horiek indartu behar ditugula uste dut. Eta, azkenik, kontzientziazioa. Beno, labur esango dizut. Oso ondo dago kontzientziazioarena. Egia da, itsasoan plastikoak agertzen dira, eta hori arazo bat da, eta hori denok dakigu, baina nik uste dut arazoa handiegia dela Udalarentzat, gainditu egiten duela. Hala ere, arazo txiki batzuk konpon ditzakegu. Horrela, herri honetan beti izan dugun arazoa da plastikozko pankarta handiekin "josita" dagoela. Gu ez gaude adierazpen askatasunaren aurka, baina haizearekin hautsi egiten dira, eta denok dakigu non amaitzen diren; gainera, nire ikuspuntutik, ez dira batere estetikoak. Hau esanda, Nestor, herri hau txikia da, zuek ondo dakizue nork jartzen dituen, eta eskatuko genizueke hainbeste plastiko alferrik ez gastatzeko esatea.

- Nestor Arana: sentsibilizazioaz ari gara, sentsibilizazioaz oro har. Hemen ez dugu inor apuntatzen. Baina tira, grabatuta daukat bideo txiki bat, eta horietako plastiko bat besterik ez da ikusten, gainerakoak beste mota batekoak dira. Beraz, kontzientziatu beharreko jendearen kolektiboa hori baino zabalagoa da. Eta hori argi utzi nahi dut. Bigarrenik, gai honengatik kezkatuta dagoen herriko jendea ibaia garbitzen aritu zen Udalak egindako garbiketaren ondoren, eta bi edukiontzi atera genituen. Uste dut horrek zerbait esaten duela Udalak egindako garbiketa eskasari buruz. Orduan, uste dugu ere Udalak egindako garbiketak gabeziak dituela. Eta esan duzuna esanda, uste

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

dut Aretxabaleta aldetik datorren edonork ikus dezakeenak lotsagarri uzten gaituela herri bezala. Eta ikusi besterik ez duzue. Herrian bada garbitzeko prest legokeen talde bat eta hori zoriondu nahi genuke. Bigarrenik, laugarren proposamen gisa, ibaietan babes-elementuak jartzea proposatzen dugu. Horrek ekidin egingo luke plastikoen zati handi bat ibaian bukatzea eta garbiketa askoz errazagoa egingo luke. Orduan, batzordean akordio batera irits gintezkeen, baina ez genuen lortu, adierazi zeniguten prozedurari jarraitu genion gaia batzordera eramanda, baina ez genuen akordiorik lortu. Gero, hitz politikak entzuten genituen, baina ez genuen adostea lortu ezta babes-neurriak ezartzearena ere. Horregatik ekarri dugu hona gaia, sozializatu egin nahi dugulako, eta nik uste dut legitimitate osoa dugula horretarako. Eta, gainera, esan dudan bezala, hemen planteatzen diren ekintza batzuk oso sinpleak dira egiteko. Eta, tira, hori izan da ekartzearen arrazoia.

- Josu Ezkurdia izan da azkena hitz egiten, eta adierazi du berak ez zuela inoiz esan babes-neurririk ezarriko ez zenik, esan zuena izan zela teknikariek ekonomikoki aztertu eta baloratu behar zuten jarduketara zela, eta gero, egoki iritziz gero, dagokion aurrekontu-esleipena egin beharko zela.

Eztabaida amaituta bozketa egin da, eta aurkako 5 botorekin (EAJ/PNVren 5 zinegotziek), bertaratutako EH BILDUren 4 zinegotziek alde bozkatuta eta EEEko zinegotzia abstenituta, ez da onartu mozioa.

10.- GALDE-ESKEAK.

Hitza eman ondoren, aretoan dauden pertsonen taldeko ordezkari batek Eskoriatzako Taichi eta jubilatuen taldeak Udal Erregistroan martxoaren 23an (sarrera-zenbakia: 625) aurkeztutako idazkia irakurri du.

Ondoren idazkia osorik transkribatzen da (lehenengo paragrafoko testua ezin da osorik irakurri/ulertu):

*Somos un grupo de jubilados/@ que a parte de las actividades propias de
TAi-chi y como jubilados comparten ambas actividades, queremos mostrar....
Inquietud por la problemática actual existente alrededor del conjunto de la
tanto en el ámbito del propio del bar, como de los diferentes locales del
..... acoge a dichos locales.*

*No pretendemos erigirnos como voz única de colectivo de jubilados de Escoriaza
ni suplantar funciones que no nos corresponden, y que están representadas por
aquellos que están debidamente constituidos y legalizados para ello.*

*Queremos unir nuestra voz a diferentes personas que opinan de la misma manera
y encauzar dichas preocupaciones.*

*Creemos que una vez terminado el largo periodo de si de aislamiento obligatorio
por el Covid, y cuando de alguna manera y de forma muy lenta se vuelve a iniciar
procesos de socialización, tan necesario en esta edad, para evitar los terribles*



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

problemas de soledad, aislamiento, el CIERRE DE L BAR DE JUBILADOS Y LOS DIFERENTES LOCALES de la Casa de Cultura llegan en el peor momento.

No pretendemos, ni es nuestra responsabilidad marcar las pautas y condiciones en las que se reanuda actividad del bar, pero si es nuestro deseo que los plazos sean lo más breves posibles.

Creemos que al margen del local del propio bar, existen una serie de locales que, con el debido orden de actuación que se estableciera, podrían estar abiertos pero paliar de alguna manera dicho cierre, máxime cuando desde ya hace tiempo los diferentes negociados que el Ayuntamiento tenía en dicho local están ya centralizados en el edificio del Ayuntamiento.

Las tareas fáciles las realizamos la mayoría de las personas, son las que requieren de imaginación, implicación y entrega las que diferencian a los buenos gestores.

Es nuestra voluntad y deseo acudir al próximo pleno ordinario en el apartado de ruegos y preguntas, con la esperanza de que podrán dar respuesta a nuestras inquietudes Mila esker.

Ondoren, honako hauek hitz egin dute:

Josu Ezkurdiak, bertaratutako guztiei etortzeagatik eskerrak eman ondoren, jubilatuen etxeko taberna itxi izana gogoratu -leku hori, bere esanetan, elkartzeko lekua zen eta oso garrantzitsua Eskoriatzako jende askorentzat- eta horrek arazo bat dakarrela aitortu, azaldu du erantzuten edo komentatzen jarraitu aurretik oso argi utzi nahi duela jubilatuen taberna itxita egotearen erantzukizuna udal honekin sinatuta zeukan kontratua hautsi duen pertsonarena dela erabat. Hitz egiten jarraitu du: “Arrazoiak direnak izango dira, batzuk ulergarriak, beste batzuk ziurrenik ez, baina kontratu publiko bat genuen. Lehen garbiketa-kontratuari buruz esan dugu alde bakoitzak bere konpromisoak bete behar dituela, eta kasu honetan ez da horrela izan; eta egia bada ere edozein sinatzailek duela kontratu publiko bat deuseztatzeko aukera, gauzak diren bezalakoak dira. Eta jubilatuen taberna itxita dago gaur egun pertsona horrek kontratua etetea erabaki zuelako kontratua amaitu aurretik. Hori esanda, eta besterik gabe, baina arazoa aztertu dugun batzordeetan aztertutako arazo hori jasota gera dadin. Beno, ondo ulertu badut, esan duzue interesgarriena Kultur Etxeko gainerako instalazioak edo espazioak erabiltzea litzatekeela. Beno, nik dakidanez, denak irekita daude, batzuk jubilatuen elkarteak berak erabiltzen ditu, beraiek dituzte giltzak. Egia da komunak itxita zeudela, taberna zuzentzen zuten pertsonen ardura baitzen horiek garbitzea, baina duela pare bat aste irekitzea lortu da, eraikin publikoak garbitzeko genuen kontratua aldatu ondoren. Igandetan izan ezik, egunero irekitzen eta garbitzen jarraituko da, Udalean langilerik ez dagoelako horiek irekitzeko ardura hartzeko. Eta gainerako lokalei dagokienez, esan dudan bezala, denak daude erabilgarri”.

Amaitzeko, azpimarratu du taberna-zerbitzua izan ezik, lokal guztiak erabil daitezkeela, eta adierazi du lokal horiek erabiltzeko eskaera egin behar dela, kultura-batzordean azter dadin.

2023/03/28
Ohiko Udalbatza
Pleno Ordinaria



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

Jende artetik, pertsona batek galdetu du ea hasi den tabernaren ustiapena lizitaziora ateratzeko prozedura.

Josu Ezkurdiak erantzun du orain ari direla horretan, ezin duela epeez hitz egin, prozedura administratiboak luzeak direlako; hala ere, adierazi du jubilatuen etxeko elkarteko ordezkariekin hitz egin zela tabernako lokala kudeatzeko beste modu bat aztertzea posible ote zen ikusteko, eta gai hori oraindik erabaki gabe dagoela elkarteko arduradunek ez dutelako erantzun, tabernari dagokionez horretan ari direla lanean, kontratu berri hori hartzeko prest dagoen pertsona bat noiz agertuko zain.

Maite Uribek jubilatuen elkarteko presidente eta idazkariarekin izandako bilera egin zela berretsi du, eta bilera horretan beraiek jarri zutela mahai gainean Antzuolako kudeaketa sistema; adierazi du gai horri buelta bat ematekotan geratu zirela eta erabakitzeke dagoela, zer erantzungo zain.

Eztabaidan zehar jakinarazi da hainbat pertsona hurbildu direla udaletxera tabernari buruzko informazio eske, baina inork ez duela adierazi tabernaz arduratzeko nahia. Maite Uribek argitu du gaur egun jubilatuen elkarteak zerbait esateko zain daudela, zentzu batean edo bestean jardun ahal izateko, taberna, hasiera batean, elkarteari baitagokio.

Josu Ezkurdiak bi aukera egongo lirakeela esan du: bata, taberna orain arte bezala ustiatzea kontratua hirugarren bati esleituz; eta bestea, elkarteak berak hartzea lokalaren kudeaketa bere gain. Adierazi du, hasiera batean, Udalak ez duela horietako bat bera ere lehenesten.

Eztabaidan zehar, tabernaren ustiapena esleitzeko prozesua hasi den galdetu dute publikoko hainbat lagunek, eta Dorleta Sologaitoak esan du oraindik ez dela lizitaziora atera. Horren aurrean, Josu Ezkurdiak eta Maite Uribek argitu dute oraindik ez dela prozesua hasi, jubilatuen elkarteak gaiari buruzko iritzia emateko zain daudelako. EH BILDUko zinegotziek epe bat jartzeko eskatu dute.

Udal arduradunek konpromisoa hartu dute elkarteko bi arduradunekin egoteko eta data bat jartzeko gaiari buruzko erantzun bat eman dezaten.

Tabernari dagokionez ere, beste pertsona bat kexu da lokalaren egoerarengatik. Udal-ordezkariak eskatu diote idazki bat aurkezteko Udal Erregistroan, argazkiekin batera, zer esan nahi duen jakiteko.

Ikusleen artetik eztabaidan parte hartu duten guztiak bat etorri dira hitz egiterakoan jubilatuen etxeko taberna funtsezko zerbitzua dela udalerriko jubilatuentzat, askorentzat aisialdirako eta sozializatorako gunea delako.

Jubilatuen etxeko tabernari buruzko eztabaida amaituta, entzuleen arteko beste pertsona batek bi gai mahaigaineratu ditu eztabaidarako, laburtuz, honako gai hauei buruzkoak:

1.- Txakur kakak jasotzen ez dituztenentzat neurriak hartzeko beharra.

Jakinarazi zaio animaliak edukitzeari buruzko udal-ordenantza bat tramitatzen ari dela, zirriborro bat dagoela eta tramitean jarraituko duela onartu arte. Era berean, horrelako kexen gai diren gertakarien aurrean zehapen-neurriak hartu ahal izateko, hutsegiteak eta zehapenak tipifikatuko dituen udal-ordenantza bat eduki behar dela adierazi zaio.

2023/03/28
Ohiko Udalbatza
Pleno Ordinaria



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

2.- Zuhaitz bat erorita ibaian, Aranburuzabala parean.

Eskatu zaio argazki bat bidal dezala, Udalak zertaz ari garen jakin dezan eta erretiratzeko behar diren gestioak egin ditzan.

Eta beste gairik ez dagoenez, 19:10ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ANTERIOR.

Por encontrar conforme es aprobada el acta de la sesión celebrada en fecha 28/02/2023 .

2.-COMUNICACIONES DE LA ALCALDIA

Se da cuenta de las resoluciones dictadas hasta el día 21 de marzo de 2023.

3.- DECLARACION INSTITUCIONAL: POLITICA DE LUCHA CONTRA EL FRAUDE DEL AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA PARA LOS FONDOS MRR

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y Hacienda y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA aprobar la siguiente DECLARACION INSTITUCIONAL

POLÍTICA DE LUCHA CONTRA EL FRAUDE DEL AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA DE LOS FONDOS DEL MRR

Introducción

El AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA ejerce la función de Autoridad de Gestión de los Fondos del MRR.

Los empleados públicos que integran el AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA tienen, entre otros deberes, “velar por los intereses generales con sujeción y observancia de la Constitución y del resto del ordenamiento jurídico y deberán actuar con arreglo a los siguientes principios: objetividad, integridad, neutralidad, responsabilidad, imparcialidad, confidencialidad, dedicación al servicio público, transparencia, ejemplaridad, austeridad, accesibilidad, eficacia, honradez, promoción del entorno cultural y medioambiental, y respeto a la igualdad entre mujeres y hombres” (Ley 7/2007, de 12 de abril, del Estatuto Básico del Empleado Público, artículo 52).

Así mismo les corresponde proteger los intereses financieros de la UE de acuerdo con los principios de corresponsabilidad, eficacia y cooperación.

El AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA manifiesta su compromiso de mantener los estándares más altos en el cumplimiento de las normas jurídicas, éticas y morales, se adhiere a los más altos principios de integridad, objetividad y honestidad y desea ser percibido como opuesto al fraude y la corrupción en la forma en que ejerce sus competencias.

El objetivo de esta política es promover una cultura que desaliente toda actividad fraudulenta y que facilite la prevención y detección del fraude y el desarrollo de procedimientos que sean efectivos en la investigación de fraudes y delitos conexos, y se asegurará de que tales casos son tratados oportuna y apropiadamente.

2023/03/28
Ohiko Udalbatza
Pleno Ordinaria



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

El AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA dispondrá de un procedimiento para divulgar las situaciones de conflicto de intereses.

El término fraude se utiliza comúnmente para describir una amplia gama de conductas ilícitas incluyendo el robo, la corrupción, la malversación, soborno, falsificación, tergiversación, la colusión, el lavado de dinero y la ocultación de hechos materiales.

A menudo implica el uso de engaño para beneficio personal, de una persona relacionada o de un tercero, o generar una pérdida a un tercero – la intencionalidad es el elemento clave que distingue el fraude de irregularidad. El fraude no sólo tiene un potencial impacto financiero, sino que además daña la reputación de las organizaciones responsables de la gestión eficaz y eficiente de los Fondos.

Esto es de particular importancia para una organización pública responsable de la gestión de los fondos de la UE. La corrupción es el abuso de poder para beneficio privado.

El conflicto de intereses existe cuando el ejercicio imparcial y objetivo de las funciones oficiales de una persona se vea comprometido por razones familiares, afectivas, de afinidad política o nacional, de interés económico o cualquier otro interés compartido con, por ejemplo, un solicitante o beneficiario de fondos de la UE.

Responsabilidades

